



Urola Erdiko Energia Plana



iraurgi Berritzen

Proiektuaren izena:

Urola Erdiko Energia Jasangarritasunerako eta Klimaren
Babeserako Plana. Ekintzen proposamena

Erakunde onuraduna:

IRAURGI BERRITZEN

Proiektuaren idazlea:

IZADI 21 (Inguru 21, S.L.)

Dokumentuaren data:

2023/12/20

ENERGIA ETA KLIMA PLANAREN IKUSPEGIA: Energiaren arloan jasagarria eta eredugarria den eskualdea eraikitzea, herritarren sentsibilizazio eta informatzearen bidez kontsumo arduratsuan eta energia berriztagarrietan oinarrituko dena. Aurrekoaz gain, energia burujabetzan aurrerapausoak emateko apustua egiten duen eskualdea izango da eta trantsizio orekatu nahiz planifikatu bati esker karbono isurpenak murriztuko ditu, eskualde zirkular eta bioanitzago bat sortzeko.

1.- GARAPEN AGENTZIA eta UDALAK

1.- ILDO ESTRATEGIKOA: ENERGIA ARLOAN ARDURATSUA ETA EREDUGARRIA DEN GARAPEN AGENTZIA SUSTATZEA

1.1 PROGRAMA: energia-eraginkortasuna bultzatzea Garapen Agentziaren eta Udalen eskumenekoak diren eraikinetan eta instalazioetan.

1.1.1.- Energiaren jasagarritasunari lotutako lege mailako obligazioak betetzen laguntzera zuzendutako urtez urteko plangintza bat prestatu, herri txikietako udalek legedia betetzeko errazte-proiektuak identifikatuz eta era berean, eskualdeko udal guztien interesekoak izan daitezkeen proiektuak abiaraziz: (* **Lehentasun altua**)

- ✓ Ziurtagiri energetikoa izateko betebeharra duten eraikinen ziurtagiri nahiz kalifikazio energetikoa egin (4/2019 Legearen 19. Artikulua).
- ✓ Udal eraikin guztien kalifikazio energetikoak osatutakoan, B azpitik daudenetan gutxienez kalifikazio hori lortzeko plangintza bat prestatu, 2030 urtea baino lehen helburu hori lortzeko (4/2019 Legearen 19. eta 28. atalaren betetzea).
- ✓ Eraikin guztietan energia auditoretzak egin (254/2020 dekretua).
- ✓ Elektrizitatearen kontagailu zaharkituak dauden eraikinetan kontagailuak teleneurketa-ahalmena duten kontagailuengatik ordezkatu (4/2019 Legearen 12. Artikulua).
- ✓ Urtero eraikinen, eraikin-zatien, instalazioen eta ibilgailuen inbentarioa egin edo eguneratzea eta Eusko Jaurlaritzako eskumena duen zuzendaritzari bidali. (254/2020 Dekretua 16. Artikulua)
- ✓ Etorkizunean udalek gauzatu ditzaketen birgaitze integraleko inbertsioetan edo udal eraikin berrien kasuan, kontsumo ia nuluko eraikinak izatea bermatu (4/2019 Legearen 20. Artikulua).
- ✓ Argiteria publikoaren auditoretza energetikoa egin.
- ✓ Udal eraikinen birgaitze energetikoari bultzada eman. (Hasita)

1.1.2.- Eskualdeko udalek eta Iraurgi Berritzenek berak energiaren aurrezpenaren zein eraginkortasunaren arloan dituzten beharrak aintzat hartuz, interesekoak izan daitezkeen egitasmo partekatuak definitu eta garatu, maila ezberdinetako aliantzak bilatuz, energiaren kudeaketa integral eta jasangarri baterako bidean.

1.2. PROGRAMA: Garapen Agentzia gisa klima-aldaketaren arloan arduraz jokatzea.

1.2.1- Iraurgi Berritzenen ingurumen-aztarna kalkulatu eta emaitzak argitaratu. (* **Lehentasun altua**)

1.2.2- Udalaz gaindiko erakundeetan sentsibilizazio ekintzak burutu. (* **Lehentasun altua**)

1.2.3.- Eskualdeko Berotegi Efektuko Gasen isuriaren kalkulua urtero egin eta herritarrei jakinarazi.

1.2.4- Garapen Agentziako kideei klima-aldaketa arintzearekin lotutako prestakuntza saioak eskaini, Iraurgi Berritzen beraren eta bertako teknikari zein langileen jarduna eskualdeko herritarrentzako eredugarria izatea lortzeko.

1.2.5.- Loiolako turismo-bulegoan energia berriztagarrien instalazioa ezartzeko bideragarritasuna aztertu eta bideragarria bada ezarri.

1.2.6.- Iraurgi Berritzenek sustatzen dituen jarduera eta ekintzetan energia eta hondakinen kontsumoa minimizatzen dela bermatu.

1.3. PROGRAMA: eskualdeko energia-mahaia eta honek udalekin duen harremana indartzea.

1.3.1- Urola Erdiko energia mahaia sustatzen jarraitu, bere jarduna ezagutarazi eta kudeaketa eta dinamizazioa aurrera eraman: antolaketa, bileren maiztasuna, araudia... (* **Lehentasun altua**)

1.3.2-Energia-mahaian eskualdez gaindiko erakundeen plangintzetan jasotzen diren energia berriztagarrien instalazioen eta proiektuen inguruko hausnarketa sustatu eta mahaian adostutakoak eskualdeko udalei zabaldu.

2.- ETEak eta INDUSTRIA

2. ILDO ESTRAATEGIKOA: EKONOMIA-SEKTOREEK ESKUALDEKO ENERGIAREN KONTSUMO OSOAN ETA KLIMA ALDAKETAREN AURKAKO BORROKAN DUTEN GARRANTZIA AZPIMARRATZEA ETA EUREN LEHIAKORTASUNA HOBETZEKO AUKERAK AZTERTZEA

2.1. PROGRAMA: ekonomia-sektoreari energiaren arloko etengabeko formakuntza eskaintzea.

2.1.1- Eskualdeko enpresa eta industriei eraginkortasun energetikoari eta eraikinetan energiaren erabilera arduratsuari buruzko prestakuntza eskaintzen jarraitu

(establezimenduen kontsumoen azterketak erraztu faktura elektrikoaren eta kontratatutako potentziaren egokitzekak egitea ahalbidetzeko, etab.). (* Lehenetasun altua)

2.1.2.- Ingurumen arloko araudiaren inguruko informazio eta prestakuntza jarduerak antolatu. (* Lehenetasun altua)

2.2. PROGRAMA: efizientzia energetikoa bultzatzea, energia berriztagarriak instalatzea eta klima-aldaketari aurre egitea helburu duten proiektuak lantzea.

2.2.1.- Jarduera ekonomiko ezberdinei lotutako autokontsumoko edo kontsumo partekatuko instalazioak ezartzeari lotutako ekimenak abiarazi, faktura elektrikoari buruzko kostuak murrizten laguntzeko eta ingurumenaren ikuspuntutik ere lehiakorragoak izateko:

- ✓ UrolEner “Aurrezki, Efizientzia Energetikoa eta Autokontsumoa energia berriztagarrien bidez” proiektuan parte hartu duten eta hartuko duten enprekin batera proiektua ebaluatu eta eskualdeko enpresa gehiagotara zabaltzeko aukera mahaigaineratu. (* Lehenetasun altua)

2.2.2.- ETEi ekonomia zirkularraren inguruko formakuntza eta beraien negozioetan aplikatzeko irizpide eta erraztasunak eskaini: (* Lehenetasun altua)

- ✓ “UrETekoZituz” proiektuaren jarraipena egiteaz gain, nekazaritzako elikagaien eta eraldaketa metalmekanikoaren balio kateetara zabaltzea, horien emaitzak aztertzea eta sektore desberdinetara egokitzeko aukera baloratzea.

2.2.3.- Energiaren kontsumoaren ikuspuntutik eta berotegi efektuko gasen isurien ikuspuntutik inpaktu handiena sortzen duten enprekin eta eskualdez gorako erakunde publikoekin elkarlanean horien ingurumen-aztarna murriztera zuzendutako proiektu pilotua definitu. (* Lehenetasun altua)

- ✓ “UrEkonomizatuz”, Urola Erdirako ingurumen-aztarna neurtzeko proposamena eskualdeko 5 balio-kateetan aurrera eraman.

2.2.4.- Energiarekin zer ikusia duten negozio eredu berrien garapena bultzatu.

2.3. PROGRAMA: energiarekin eta klima aldaketarekin zerikusia duten ikerketa eta azterketak egitea ondoren hobekuntzak proposatu ahal izateko.

2.3.1- Industria poligonoetan kokatuta dauden enpresen energia-beharren egoera aztertu, behar horiek asetzeko gai diren neurri partekatuak antzemateko eta martxan jartzeko. (* Lehenetasun altua)

- ✓ 2020an egin zen Azkoitiako, Azpeitiako eta Zestoako industrialdeetan energia berriztagarriak ezartzeko azterketa teknikoari lotuta, jarri ziren instalazioen

berrikuspena egin, gastu ekonomiko zein energetikoaren aldaketa baloratu eta gehiago zabaltzeko beharrezko jarduketak burutu.

2.3.2.- Urola Erdiko Industria gunek naturalizatzeko eta berdatzeko proposamenak landu (lorategiak, estalkiak...).

2.3.3- Eskualdeko zerbitzuen sektoreak duen energiaren kudeaketari buruzko egoera ezagutzeko ikerketak burutu, aurrezpena eta eraginkortasuna handitzeko ekimenak martxan jarri ahal izateko. (* Lehenetasun altua)

- ✓ Energia pobrezia eta urrakortasuna komertzio txikian: analisia eta laguntza plana abiatu. (Hasita)

3.- ETXEBIZITZAK

3. ILDO ESTRATEGIKOA: ETXEBIZITZETAN ENERGIA ERAGINKORTASUNA SUSTATZEA.

3.1. PROGRAMA: herritarrek energiaren eta klima-aldaketaren arloan sentsibilizatzea informazio gardena eta prestakuntza eskainiz.

3.1.1- Garapen Agentziatik herritarrei zuzendutako informazio eta sentsibilizazio kanpainak urtero egin. (* Lehenetasun altua)

- ✓ Herritarrei etxebizitzetako energia kontsumoa murrizteko eskaintzen diren formakuntza-saio eta tailerren berri eman eta—energia-jasangarritasunari lotutako bestelako tailer berriak antolatu

3.1.2.- Etxebizitzetan energia berriztagarrien instalazioak ezartzeko aukerak herritarrei helarazi eta aholkularitza eman.

3.2. PROGRAMA: pobrezia eta zaugarritasun energetiko egoeran dauden herritarrei babesa emateko ekintzak burutzea.

3.2.1- Eskualdeko pobrezia energetikoari aurre egitera bidean etxebizitzetako energia kontsumoaren azterlanekin jarraitu (Aurreratua) (* Lehenetasun altua)

3.2.2.- Eskualdeko udalek pobrezia energetikoari aurre egiteko martxan jar ditzaketen laguntza-lerroei buruzko informazioa herritarrei bideratu.

3.3. PROGRAMA: eraikinen birgaitze energetikoa eta eraikitze kultura berria sustatzea.

3.3.1.- Eraikinen birgaitze energetikoari bultzada emateko eskualde mailako ekimenak antolatu.

3.3.2.- Eraikitze kultura berria bultzatu: ZERO ENERGIA ERAIKINAK. (Hasi gabe)

4.- GARRAIOA eta MUGIKORTASUNA

4. ILDO ESTRATEGIKOA: GARRAIO ETA MUGIKORTASUN EREDU JASANGARRIAGO BATEN ALDE EGITEKO BALIABIDEAK EZARTZEA.

4.1. PROGRAMA: eskualdean mugikortasun jasangarria hobetzea

4.1.1.- Eskualdeko mugikortasun plana berrikusi eta herrietako mugikortasun planekin lerrokatu. (* Lehentasun altua)

- ✓ 4.1.1.1- Eskualdeko mugikortasun jasangarriko beharrak eskumena duten eragileetara bideratu eta eskaera horiek asetzerantz zuzendutako proiektu partekatuak bultzatu (eskualdeen arteko garraio publikoaren bidezko loturak, eskualdeko udalerrien arteko garraio publikoa, etab.)
- ✓ 4.1.1.3.- Ibilgailu elektrikoak kargatzeko puntuak instalatzeko orduan erraztasunak ematea.

4.1.2.- Bizikletaren Plan Estrategikoaren diagnostikotik abiatuta plana osatu, mugikortasun jasangarriarekin zerikusia duten bestelako ekintza osagarriak txertatuz. *(oinez eta bizikletaz mugitzeko erraztasunak eskaintzea (herri barruko eta herrien arteko loturak, oinezko bide seguruak, bizikleten alokairu sistema, eta abar)*

4.2. PROGRAMA: eskualdeko garraioa hobetu eta egokitzeko lanak aurrera eramatea.

4.2.1.- Udaletako ibilgailu-flota berritzeko planaren ebaluazioa bermatu eta lortutako emaitzen arabera eskualde mailako intereseko jarduerak planifikatu.

4.2.2.- Fotolindegia abian jartzeko azterketa egin.

5.- LEHEN SEKTOREA

5. ILDO ESTRATEGIKOA: LEHEN SEKTOREAREN ENERGIA KOSTUA MURRIZTU ETA LEIHAKORTASUNA HOBETZEA.

5.1. PROGRAMA: lehen sektorean energia eta uraren gastua ezagutu eta klima-aldaketara egokitzeko pausuak ematea.

5.1.1- Lehen sektorearen energiaren eta uraren kontsumoaren azterketa egin nekazaritza eta abeltzaintza ustiatzeetan eta bertatik ateratako emaitzen arabera hobekuntzak planteatu (besteak beste, l. energia planeko amaitu gabeko ekintzak barne biltzen ditu: 3.2 eta 3.3): (* Lehentasun altua)

- ✓ Eskualdeko zenbait ustategitan egindako energia-auditoretzez gain auditoretzak ustategi gehiagotan egiteko pausoak eman.
- ✓ Ur-eskari handiena duten ustategietan ura aurrezteko sistemak ezartzeko baliabideak erraztu.
- ✓ Energia eta uraren aurrezpenaz gain, bestelako ingurumen-praktika egokiak martxan jartzeko bideragarritasun-azterketak burutu.

5.1.2.- Klima-aldaketaren ondoriozko lehorte garaiek eskualdeko lehen sektorearen jardueran eragin ditzakeen kalteak balioetsi eta aurre egiteko neurriak hartu.

5.2. PROGRAMA: eskualdean bertako produktuak kontsumitzea bultzatzea, energiaren gastuan eta klima-aldaketan duen eragina nabarmenduz.

5.2.1.- Eskualdean nekazaritza ekologikoa egiten duten nekazariekin harremanetan jarri, egoera ezagutu eta zabaltzera bidean pausuak eman; Era berean, herritarrei bertako produktu ekologikoen garrantzia ikusarazi.

5.2.2.- Eskualdeko udalerrietan elikagaien salmenta egiten duten merkataritxien eta bertako nekazari zein abeltzainen arteko loturak sortu, garraiotik eratorritako energia gastuak eta kalteak saihesteaz gain, tokiko ekonomia garatzeko helburuarekin.

6.- KLIMA-ALDAKETA ETA INGURUNE NATURALA

6. ILDO ESTRATEGIKOA: KLIMA-ALDAKETAREN ARINTZEA ETA EGOKITZEA LANDU ETA INGURUNE NATURALA BABESTEAK.

6.1. PROGRAMA: klima-aldaketara egokitzea eta eskualdearen erresilientzian aurrera egitea.

6.1.1- Eskualdeko diagnostikoan jasotako klima-mehatxuei buruzko informazioetik abiatuz, arriskuaren nahiz urrakortasunaren ikuspuntutik lehentasunezkoak diren alderdietan sakondu, udalei neurri egokiak ezartzen laguntzeko. (* Lehentasun altua)

- ✓ 6.1.1.1- Bero boladek giza osasunean izan dezaketen kalteari begira, eskualdeko udalekin batera bero-boladei aurre egiteko protokolo-eredu bat prestatu. Herritarrei abisuak eta gomendioak emateko bidea adostu eta egoera larrienerako alternatibak bilatu (konfort termikoa eskaini dezaketen eraikin publikoen irekitze puntualak, adibidez)
- ✓ 6.1.1.2.- Bero boladek giza osasunean izan dezaketen kalteari begira, eskualdeko guner berde eta itzaltsuen inbentarioa eta mapa garatu Garapen Agentziako web orrian herritarren eskura jartzeko eta behar bada iturri eta eserleku gehiago jartzeko deia egin udalei.

6.1.2.- Eskualdeko herri bat baina gehiago hartzen duten natur guneeetan eta Natura 2000 sarean kokatuta dauden lursail pribatuak erosten joateko eskualde mailako plangintza bat landu. (* **Lehentasun altua**)

6.1.2.1.- Eremu berdeen eta basoen kontserbazioa sustatzea eta bermatzea, baso-berritzeak bertako espezieekin eginaz.

6.2. PROGRAMA: klima-aldaketa arintzeko eskualde mailako ekimenak aurrera eramatea.

6.2.1.- Berotegi Efektuko Gasen emisioen atxikipena sustatzeko asmoz, lursail publiko eta pribatuetako basoen jarraipena egin, eskumena duten erakundeekin eta lurjabeekin elkarlanean, atxikipen gaitasun handia duten basoen kontserbazioa bermatuz eta ahalmen gutxi duten basoen/zuhaitz landaketen kasuan, atxikipen-ahalmen handiko basoak sustatzeko neurriak bultzatuz (dirulaguntzak, pizgarri fiskalak, ...), biodibertsitatearen zaintzarekin orekan. (* **Lehentasun altua**)

6.2.2.- Garapen Agentzietatik klima-aldaketari egokitzearen ikuspuntutik eskualdeko jarduera ekonomikoetan garatu daitezkeen egitasmoen berri eman eta horien ezarpena sustatu.

7.- PRESTAKUNTZA, HEZKUNTZA ETA HERRITARREN PARTAIDETZA

7. ILDO ESTRATEGIKOA: HEZKUNTZA, KOMUNIKAZIOA ETA HERRITARREN PARTAIDETZAREN BIDEZ ENERGIA ETA KLIMAREN ARLOAN ESKUALDE ARDURATSU ETA KONTZIENTZIATUA LORTZEA.

7.1. PROGRAMA: herritarrei zuzendutako energia arloko komunikazio eta sentsibilizazio ekintzak burutu.

7.1.1- II. Energia-planaren inguruko komunikaziorako, sentsibilizaziorako eta herritarren nahiz sektore ezberdinen parte-hartzea errazteko estrategia definitu eta abiarazi. (* **Lehentasun altua**)

7.1.2.- Eskualdeko hezkuntza arloarekin elkarlanean (ikastetxeak, Ekoetxea Azpeitia, Lanbide-heziketako zentroak, etab.) ikastetxeetan klima-aldaketa lantzeko Urola Erdirako hezkuntza-proposamen bat landu, 50/50 egitasmoa klimaren aldagaiarekin osatu ahal izateko: ikasleei gaur egungo zein etorkizuneko egoera klimatiko larriaren berri eman, kontzeptuak barneratu eta jasangarritasun ikuspegia umetatik edo gaztetatik landu dezaten eragin, irakasleak prestatu eta inplikatu, etab.

7.1.3.- Iraurgi Berritzenetik klima-aldaketaren inguruko formakuntza saioak bideratu udaletako langile, politiko zein herritarrentzako:

7.1.3.1 Eskualdeko herritarrei bideratutako klima-aldaketari buruzko formakuntza-saioak antolatu (zer den, nola sortzen den, eragiten dituen kalteak eta hobekuntza posibleak; Egungo eredua ez dela jasagarria adierazi eta kontsumo orokorra murriztu beharraz kontzientziatu).

8.- ENERGIA BERRIZTAGARRIAK

8. ILDO ESTRATEGIKOA: ESKUALDEAN GERTUKO ENERGIA BERRIZTAGARRIEN BIDEZKO SORKUNTZA BULTZATZEA

8.1. PROGRAMA: energia berriztagarrien instalaziorako eskualdean dagoen potentziala aztertzea.

8.1.1.- (BIOGASA) Biogasa sortzeko hondakinen (HHO, nekazaritzakoak, abeltzaintzakoak, basogintzakoak) aprobetxamenduaren azterlana burutu. (Hasi gabe) (* Lehenetasun altua)

8.1.2.- (BIOMASA) Biomusak energia sorkuntzarako eskualdean duen potentzialaren azterketa egin eta eraikin ezberdinetan biomasa galdarak ezartzeko bideragarritasuna aztertu. (* Lehenetasun altua)

- ✓ Biomasako instalazioa jarrita duten eraikinetan bertako egurra erabiltzeko plana diseinatu.
- ✓ Inplantazioaren analisia burutu, egungo eskariaren eta erabilera termikorako potentzialaren azterketa eta balorizatu beharreko materialaren arabera. (Hasi gabe)
- ✓ Baliabideen auzo erosketaren eta biltegi eta salmentarako beharrezkoak diren azpiegituren analisia burutu. (Hasi gabe)
- ✓ Urola erdian eskuragarri dauden baliabideak eta bertako beharrak asetzeko gaitasuna eta aprobetxamendu iraunkorra aztertu. (Hasi gabe)
- ✓ Bertako baliabideak erabiltzeko estrategia diseinatu (Lurjabe eta negozioeredu berrien arteko akordioak). (Hasi gabe)

8.1.3.- (MINIEOLIKOA) Errekurtsoaren bilaketan sakondu, minieolikoaren potentzialtasuna aztertu eta instalazioen ezarpena egin (Hasi gabe) (* Lehenetasun altua)

8.1.4.- Energia iturri berriztagarrien aprobetxamenduarekin loturik nekazal sektoreak izan litzaken aukeren analisisia egin. (Hasi gabe) (* Lehenetsun altua)

8.2. PROGRAMA: energia berriztagarrien instalazioak ezartzea eta ezarrita daudenei jarraipen egokia egitea.

8.2.1.- (BIOGASA) Hiri-hondakinen zati organikotik lortutako biogasarekin argindarra eta energia termikoa sortzeko instalazioa ezarri Lapatz hondakinen tratamendu zentroan. (Hasita) (* Lehenetsun altua)

8.2.2.- Zentral energetiko berriztagarrien instalazioa egiteko gune degradatuak lehenetsi, natur-inguruneen aurretik.